

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea

**MAITASUNEAN ETA ERRESPETUAN
HEZTEN: 0-3 URTE BITARTEKOEN
HARMONIA**



EGILEA: ANE ERICE OLAIZOLA

ZUZENDARIA: ELENA HERRAN IZAGIRRE

AURKIBIDEA

Sarrera	5
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera	6
1.1. Nor da Emmi Pikler?	6
1.2. Zer da Lóczy Institutua?	7
2. Pikler-Lóczy ereduaren printzipioak	8
2.1 Jarduera autonomoaren balioa	9
2.2 Norberaren buruarekiko eta inguruarekiko kontzientzia	11
2.3 Umea eta helduaren arteko lehentasunezko harremana	12
2.4 Osasun egoera fisiko ona	13
3. Kalitatezko zaintzak	14
3.1 Kalitatezko zaintzen garrantzia	15
3.2 Kalitatezko zaintzak burutzen	18
4. Azken ondorioak	23
4.1 Egungo egoera	23
4.2 Gure jardunbidea birplanteatzen	24
4.3 Pikler-Lóczy metodologia eredu	25
5. Erreferentzia bibliografikoak	27

MAITASUNEAN ETA ERRESPECTUAN HEZTEN

3-0 URTE BITARTEKOEN HARMONIA

Ane Erice Olaizola

UPV/EHU

Aurrerapen zientifikoek aurrera egin ahala, lehen haurtzarorako begirada eraldatu egin da, bereziki garapen motorren alorrean. Haurtxoa izaki pasibo bezala ikusten zuten ikuskerek, subjektuaren konpetentzia goiztiarren aurrean begiruneko jarrerak gartu dituzte. Lan honetan kalitatezko hezkuntza eredu instituzionalizatua garatu zuen Emmi Pikler-en ekarpenak aztertuko ditugu. Eredu honek printzipio pedagogiko zehatz batzuen arabera jaioberria eta haurtxo txikia ikusteko beste era bat eta hezitzaile bezala zaintzen dugun ume bakoitzarekiko betetzen dugun rolaren eraldaketa proposatzen du. Honek hezitzailearen jardunbide tradizionala birplanteatzera bultzatzen gaitu, haurrenganako maitasuna eta begirunea oinarritzat duen hezkuntza sistema bat eraiki ahal izateko.

Gako hitzak: *Haurtxoak eta haur txikiak, kalitatezko zaintzak, Pikler-Lóczy pedagogia, hezitzailearen jarrera, maitasuna eta begirunea, hezkuntza komunitatean, hezitzailea.*

La mirada a la primera infancia se ha transformado de acuerdo a los avances científicos y especialmente en lo relativo al desarrollo psicomotor. Concepciones que veían al bebé como un ser pasivo, han evolucionado a maneras más respetuosas ante las competencias tempranas del sujeto. En este trabajo, repasaremos las aportaciones de Emmi Pikler, pediatra húngara que desarrolló un modo de crianza institucionalizada de calidad con una serie de principios pedagógicos en los que propone una manera diferente de mirar al recién nacido y al niño pequeño y una transformación del rol que desempeñamos como educadores/as en nuestra relación con cada niño y niña al cargo. Esto significa cuestionar la función docente tradicional, para la construcción de un sistema didáctico basado en el amor y el respeto hacia el niño.

Palabras clave: *Bebé y niño pequeño, cuidados de calidad, Pedagogía Pikler-Lóczy, actitud educativa, amor y respeto, educación en colectividad, educador.*

The sight to first childhood has changed according to scientific advances and especially concerning psychomotor development. Conceptions of the baby as a passive human being have evolved to more respectful ways in front of the individual earlier domains. In this article, we will revise Emmi Pikler's contributions. She was a Hungarian pediatrician who developed a kind of qualified institutional breeding with some pedagogic principles in which she proposes a different way of watching the newborn and toddler and a transformation of the roll that we make as educator with each girl or boy we take charge of. All this leads to question the traditional teaching institution to construct a didactic system based on love and respect to the child.

Key words: *Babies and toddlers, high quality care, Pikler-Lóczy pedagogy, educational attitude, love and respect, education in community, educator.*

Sarrera

Lehen haurtzaroko profesionalek betebeharrak handia dugu *lehen haurtzaroaren kultura* deritzogunaren hausnarketetan. Lau urte hauetan haurtzaroari buruzko hainbat hurbilpen egin baditugu ere, hutsune handia sumatu da formazioaren alde praktikoan, batez ere 0-3 urte bitarteko adin-tartean. Alor honen inguruan Emmi Pikler doktoreak (1902-1984) eta Lóczy Institutuan berarekin lan egin zuten profesionalek ekarpen oso garrantzitsuak egin badituzte ere, graduan zehar metodologia honen inguruan oso oinarritzko formakuntza lortu dugu.

Kontuan izanda haur baten lehenengo hiru urteak garapen sendo baten oinarriak ezarriko dituzten urteak direla, haur horien hazkuntza harmoniko eta orekatu bat ahalbidetzeko hezitzaileok hartu beharreko jarreraren inguruan hausnartu behar dugu. Nire etorkizunari begira adin-tarte horren inguruan formazio sakonago bat jaso behar nuela argi nuen, eta beraz, Gradu Amaierako Lanak eskaintzen zuen aukera aprobetxatuz, gabezia hori gainditzea erabaki dut. Modu honetan, lan honen bidez eta Pikler-Lóczy metodologia jarraituz, haurtzaroko lehenengo urteetan lan egingo duten profesionalen jardunbidea egituratzea eta oinarritzko printzipio batzuk argitzea dut helburu. Lan honen helmugak hurrengoak dira:

- ❖ Pikler-Lóczy metodologiak aurkezten dituen kontzeptu teoriko-praktikoak Haur Hezkuntzako hezitzaileentzat erabilgarriak diren ala ez hausnartzea.
- ❖ Lehen haurtzaroaren garrantziaz jabetzea.
- ❖ Haurraren garapen autonomoa ahalbidetuko duten hezitzailearen oinarritzko jarrerak ezagutzea.
- ❖ Haurraren garapen psikofisikoa aberastu dezaketen estrategia ezberdinak aditzera ematea.

Modu honetan eta Emmi Pikler-en proposamen metodologikoa errotzen duten printzipioak aztertu ostean, kalitatezko zaintzen garrantziari arreta eskainiko diogu, bai haurrarentzat zein helduarentzat ikasketa handiko diren momentu horiei. Amaitzeko, gure egungo eskolen errealitatearen gaineko balantzea egin ostean eta E. Pikler eta bere lan-taldearen proposamenean oinarrituz, haur txikien hezkuntza ulertzeko ikuspuntu berri bat aditzera emango dugu.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera

1.1. Nor da Emmi Pikler?

Emmi Pikler 1902an jaio eta 1984an hil egin zen. Vienan jaioa, haurtzaroko lehenengo urteak Budapesten eman bazituen ere, 20ko hamarkadan Vienara bueltatu zen medikuntza ikasketak burutzera. Vienako kirurgia ospitalean lortu zuen 1927an, pediatriako doktoretza. Bertan, Pirquet eta Salzer irakasleengandik ordurako oso berritzaileak ziren fisiologia eta osasun prebentziorako ikusmoldeak barneratu zituen.

Unibertsitateko ospitale horretan, etorkizunean Budapesten aurrera eramango zituen zenbait printzipio trebatzen hasi zen: Haur txikiei egindako azterketak eta zaintza zuzenak ahalik eta atseginenak izatea saiatzeko ziren. Haurrek negar egitea saihesten zuten, samurtasunez ukituz, haurra sentitzen duen izakitzat hartuz. Haurrek denbora luzea ematen zuten eraikinaren kanpoaldean, negua izanda ere. Aldi berean, gaixotutako umeei jolaserako txokoetara joatea ahalbidetzen zieten, egun osoa ohean egotearen ideia alde batera utziz. Haurren janzkera ere ez zen ohikoa: hankan ez zeuden bildurik haurraren berezko mugimenduak ahalbidetuz. Eta ospitalean janariarekiko arau apurtezin bat zegoen: debekatuta zegoen edozein haurrari (gaixoa edo ez) gustu onez hartzen zuena baino janari koilarakada bat ematea.

Aldi berean, ospitaleko traumatologia sailean, haurren istripuen inguruko estatistiketatik, hainbat ondorio atera zituen: behe eta erdi mailako familietako haurrek konmozio eta hezur apurketa gutxiago jasaten zituzten goi-mailako familietako haurrek baino. Erdi eta behe-mailako familietako haurrak egunak ematen zituzten kalean, alde batetik bestera, zuhaitzak igotzen, oreka jolasak egiten, korrika egiten ... Eurak izanik euren hazte-erritmoa ezartzen zutenak. Ez zitzairen garapen naturalaren kontra zihoazen postura zehatz batzuetan jartzen, mugimendu askea nagusitzen zen.

Aldiz, goi-mailako familietako haurrak, babestuegiak zeuden eta euren haurtzaroan helduen presentzia eta esku-hartzea oso handia zen. Helduen interbentzio txikiagoa jasandako umeen egoera fisikoa, beraz, hobetua zen eta, ondorioz, helduaren esku-hartzea mugatzearen aldekoa eta jaiotzetik haurraren mugimendu askearen defendatzaile sutsua bihurtu zen Emmi Pikler.

Pediatria ikasketak buru ostean, Triestera bidaiatu eta bertan bere senarra izango zena, György Pikler pedagogo ezagutu zuen. 1932an Budapestera bueltatzen dira. Haren esperientzia familiarrek haurrenganako bere ikuskera definitzen lagunduko dute guztiz. 30. hamarkadan aurretik barneratutako printzipio guztiak praktikan jartzeko aukera bikaina izango du bere lehenengo alabarekin. Haren erritmoa, ekimen, mugimendu askatasuna eta jolasa errespetatuz, umearen berezko garapena ahalbidetuko du.

Hamar urte bitartean, familia pediatria gisa lan egingo du eta 100 ume eta haurtxo baino gehiago zainduko ditu euren etxeetan, beti ere, familiak aholkatzen baina, batez ere, haur eta umeenganako konfiantza pizten. Modu honetan, Pikler-ek haurra behatzera bultzatuko ditu familiak, zaintza zuzenetan eskaini behar zaien atentzio bereziaz aparte, helduen esku-hartzea alde batera utziz. Aldi berean, ingurua prestatzen eta zaintzen irakatsiko die gurasoei, elkarrekiko ongizate bat sortuz heldu eta haurren artean (Pikler, 1985). Ume horiek lehenengo "*Pikler umeak*" izango dira, ume alaiak, ikusmira handikoak, biziak eta gogotsuak, euren gurasoei eta inguruneari egoki uztartuta daudenak (Herran, 2013).

1.2. Zer da Lóczy Institutua?

1946tik aurrera, Emmi Pikler, Hungariar gobernuak eskatuta, Budapesteko Umezurt-etxea zuzentzen hasten da. Ordurako Bigarren Mundu Gerra amaitu berri zegoen eta Hungarian haur umezurtzen kopurua handia zen. Helburua guraso gabeko haurrentzat etxe bat sortzea zen; baina bertan, haur umezurtzak hartzeaz gain, gurasoen zaintza jaso ezin zuten umeak ere hartu zituzten.

Umezurt-etxe hau Lóczy kalean 3. zenbakian kokatuta dago, hau dela eta, etxe hau "Lóczy" bezala ezagutzen da. Etapa berri honetan, Pikler-ek elkarri lotuta doazen hiru helburu nagusi izango ditu: instituzioa batean egonda ere haurren garapen psikiko eta fisiko egoki bat posible dela frogatzea, haren hezkuntza-sistema aurrera eramatea eta azkenik, zorrozki egituratuak eta kontrolatuak izango diren epe luzeko haur eta umeen gaineko ikerketa sakonak burutzea (Herran, 2013).

Umezurt-etxean aurrera eraman nahi duen hezkuntza sistemak, batez ere, haurra eta hezitzailearen arteko harreman estuari emango dio garrantzia, testuinguru egoki eta aproposa sortuz, beti ere, haurraren mugimendu askatasuna errespetatuz. Baina ikusmolde hau ez zetorren bat ordura arte instituzioan aurrera eramandako lanarekin eta lehenengo hiru hilabete gorabeheratsuen ondoren, bertako hezitzaile guztiak kanporatu egiten ditu. Horien ordeztu, formakuntza gabeko baina haur hezkuntzan interesa zuten neska gazteak kontratatu egiten ditu. Emmi Pikler-ek haur txikien zaintzak nolakoak izan behar diren erakutsi egiten die: zaintza zuzenak (pixoihalen aldaketa, elikatu, bainua..) modu koherente, adeitsu, gertu, sistematiko eta ume bakoitzaren beharrei erantzuteko aproposak izan beharko dira. Bestalde, haurren keinuak, mugimenduak, harremanak, etab. behatzera bultzatzen zaie hezitzaile berriei, betiere ondoren etorriko dena aurreratuz eta haurren kolaborazioa bilatuz. Formakuntza berri hau laguntzeko, Pikler-ek hezitzaile berriak hezteko gida-liburuak egin zituen. Gida hauetan, arestian aipatutako gomendioak biltzeaz gain, umearen eguneroko bizitzan aurkituko zituen objektu guztiak azken xehetasuneraino zehaztu zituen.

Lóczy-n, hasiera batean, 0-3 urte bitarteko haurrak besterik ez ziren hartzen. Denbora aurrera egin ahala, egonaldia 6 urtera arte luzatzea erabaki zuten, harreman egonkorrek umearen garapenean zuten garrantziaz ohartu zirelako. Bitarte horretan, adopzioak edo etxera bueltatzeak ematen ez baziren, behintzat. Denbora horretan, Lóczyko hezitzaile-taldea handitzen doa pedagogo, pediatra, psikologo, erizain berriekin, etab. Emmi Pikler eta Lóczy umezurtz-etxean berarekin lan egiten duten profesionalen ardura nagusia haur bakoitzaren ongizate fisiko, afektibo eta psikikoaz arduratzea da, haur bakoitzak bere garapenerako behar dituen baldintza onenak ahalbidetuz. Baina Lóczy, bertan bizi ziren haurren garapena eta bizitza esperientzia egokiaz arduratzeaz gain, ikerketa gune ere bihurtu zen; haurraren garapenaren aspektu desberdinetan oinarrituz eta behaketa sakonak eginez.

1961rako, Lóczy umezurtz-etxeko lan-metodologiak haratago egingo du eta *“Umezurtz-Etxe Metodologiko”* batean bihurtu egingo da, eta hiru urte beranduago, 1964an, *“Haur eta umeen zaintzarako metodoen Institutu Pedagogikoa”* izena hartuko du.

Hortik aurrera, egunero haurrekin egindako lanari, hezitzaile, pediatra, zaintzaile eta haur hezkuntzarekin lotura duten beste profesionalei zuzendutako eskuliburu ezberdinak argitaratuko dituzte.

Lóczy-ko praktika ezaguna egiten hasi zen Hungariatik kanpo ere. Horrela, 1968tik 1970era bitartean OME Osasunerako Mundu Erakundearekin batera ikerketa lan sakon bat abiatu zuten. 1971tik aurrera, *“Umezurt-Etxeen Metodologiaren Institutu Nazionala”*-ean bilakatuko da, ikerketa gune garrantzitsu batean bihurtuz. Aldi berean, Hungariako beste umezurt-etxeen aholkulari bihurtuko da Lóczy Institutua bera. Ondoren, *“Emmi Pikler Institutua”* eta *“Pikler-Lóczy Institutua”* izena hartuko du umezurt-etxe honek 2011. urterarte. 2011ko apirilean instituzio honek bere ateak itxi eta *“Nazioarteko Emmi Pikler Fundazioa”*-k ere bere azken egunak bizi izango ditu. 2006an sortutako Pikler Haur Eskolak, *“Hungariako Pikler-Lóczy Elkarte”* eta *“Lóczy Haurrentzat Fundazioa”* rekin batera, umezurt-etxearen errelebua hartuko dute.

2. Pikler-Lóczy ereduaren printzipioak

Duela berrogeita hamar urte, Emmi Pikler-ek Lóczy institutua sortu zuenean, edozein arrazoia zela, euren familietan hazi ezin ziren eta ondorioz instituzio batera bidalitako hartxo eta haur txikiek sufritzen zituzten **gabeziak desagertaraztea** zen bere helburu nagusia. Haur bat, haren amarekin hazi ezin bazen, amatasun harreman hori birsortzeko aukera ez zegoela argi zuen Pikler-ek, baina, aldi berean, marko instituzional batean haurraren erabateko garapena ahalbidetzea posible zela sinetsi ere. Modu kontziente eta erradikal batean, beste umezurt-etxeetan burutzen zen lan egiteko era deuseztatu zuen eta horren ordez, familia-egitura imitatzen saiatu gabe, haurraren berezko ekimenetik sortutako jarduera askearen inguruan pediatra gisa lan egin zuen bitartean izandako esperientzia, behaketa eta aurkikuntzei jarraituz, haur-talde baten ardura hartu zuen.

Hasieratik, haurra **etengabe garatzen** den pertsona gisa eta aldi berean, bizitzako momentu guztietan eraikitzen den haurtzat hartu zuen, eta haurrek instituzio batera heltzean dituzten beharrianak asetzea lortu zuen.

Emmi Pikler eta Lóczy umezurt-etxean berarekin lan egiten duten profesionalen arduraren nagusia haur bakoitzaren **ongizate fisiko, afektibo** eta **psikikoaz** arduratzea da, haur bakoitzak bere garapenerako behar dituen baldintza onenak ahalbidetuz. Modu honetan, hauek izango dira Lóczy-ko ereduaren lau oinarri nagusiak (David eta Appell, 1986,2010; Falk, 1997,2008a; Herran, 2013):

1. Umetxoaren eta ume txikiaren jarduera autonomo proaktiboa baliotsu-baliotsua da.
2. Umeak, pixkanaka-pixkanaka, garapen-mailaren arabera, bere buruarekiko eta inguruarekiko kontzientzia hartzen joateko etengabeko laguntza behar du.
3. Helduaren eta umearen arteko harremanen egonkortasunak eta, batez ere, ume bakoitzak bere helduarekin duen lehentasunezko harremanak oinarri emozional sendoa eskaintzen diote.
4. Aipaturiko printzipioak ezartzearen ondorioz, umeak osasun-egoera fisiko ona izaten du eta, aldi berean, horren jatorria ere badela esan daiteke.

Lau printzipio hauek garrantzi bera dute, eta aurrera eramaten den hezkuntza proiektuak zentzu guztia lortzen du lau printzipio hauek aldi berean eta une oro presente daudelako. Hauetako bat zainduko ez balitz, haurrari eskaintzen zaion esperientziaren oreka haustu egingo zen. Falk-ek azaltzen duen bezala (Falk, 1999, 7 orr.), *“premia horiek asetzeko etengabeko asmo horrek egituratzen du hezkuntza-proiektua eta jardunbide pedagogiko osoa”*. Hala ere, printzipio bakoitzaren zentzua hobeto ulertzeko, beharrezkoa da banan-banan bakoitzaren azterketa sakon bat egitea, aldi berean, printzipio-multzo banaezin direla argi izanda.

2.1 Jarduera autonomoaren balioa

Jarduera autonomoaren gaineko interesa garatzea ezinbesteko gauza da edozein haurraren hezkuntzan. Jarduera autonomo horren bidez haur txikiek garapen motor orekatu bat eta garapen kognitibo egoki baten oinarriak ezartzea ahalbidetuko dien esperientziak biltzen joango dira (David eta Appell, 2010).

Haren buruaz, eskuaz, mugimenduaz, inguruneaz arduratzen den sehaska-umeak, haren jarduteko erak aldatzen ditu etengabe: haren ingurua aztertzen du, ondoren, bere mugimenduetan murgildu egingo da, haren gorputz osoa jokoan jarritz. Beste une batean eskuan duen objektua aztertzeari ekingo dio. Modu berean, haren bereganatze-fasearen arabera jarduera ezberdinak aldatzen joango da: erraz burututako keinu eta mugimenduak oraindik ikasketa-estadio aktiboak dauden edota haurrak aurkitzen dituen bestelako jarduera moduekin aldizkatuko ditu, beranduago, era arruntean burutzen jarduerara bueltatuz (Tardos, 1992). Bere barneko ahaleginak, beraz, haurrak berak **dosifikatu** eta **erregulatuko** ditu. Bere jardueretan zehar, haurrak behatzen, jokatzeko, bere gorputza modu ekonomiko batean erabiltzen, haren ekintzen ondorioak aurreikusten ikasiko du, haren aukeren **mugak ezagutuko** ditu, haren mugimenduak eta ekintzak aldatu: *ikasten ikasiko du* (Tardos, 1992).

Oso inportantea da lehenengo unetik haurrari jarduera autonomoak eskaini diezaiokeen plazerraz ohartzeko aukerak eskaintzea. Autonomiak berezko balio hartzen du *“nik bakarrik egiten dut”* horrek haurraren poztasun egoera bat sortzen badu (Falk, 1990). David eta Apell-ek (2010, 24 orr.) dioten bezala, *“jarduera batek zentzua har dezan ezinbestekoa da haurraren inizatibatik abiatzea, biziko duen emaitza ekimenaren auto-motibazioa izanik”*. Askatasun hau errespetatzeko helduak ez du zuzeneko esku-hartzerik burutuko. Alor motorrean ez du bere estimulazio, laguntza, ezta heziketa inposatuko, guzti honek haurraren pasibotasuna eta dependentzia bultzatuko baitzuen. Helduaren erantzunak ezingo du inoiz haurraren eskaeratik haratago joan, beti eskaeraren atzetik mantendu beharko da eta haurrak egoera menperatzerara bultzatu beharko du. Modu berean, helduaren eta umetxoa edo



1. Jarduera autonomoa

ume txikiaren harremana erreala eta beroa izanik, haurraren eskaera afektiboa kontrolatzen saiatuko da heldua, umearen oreka emozionala bermatu dadin. Hala ere haurra edo haurtxoa ez dago inoiz bakarrik; hezitzailea beti gertu edo inguruan dago eta dena antolatuta dago umea beti hezitzailearen ikus edo entzun eremuan

egoteko. Haurrak helduaren presentziaz ohartzen da eta aldi berean, heldua haurraren ekintzen berri du beti eta horien gainean jokatzeko aukera du (David eta Appell, 2010).

Hala ere, egoera horietan helduaren zeharkako estimulua jasotzen du haurrak, eta arlo kognitibo, afektibo, emozional eta psikomotoreak era orekatu batean garatzeko baldintzak eskaintzen dizkio (David eta Appell, 2010):

- Material eta egoera ezberdinen progresioa. Haur bakoitzaren gustuak eta garapen-maila kontuan hartuta, askotariko materialak jartzen zaizkie eskura.
- Haur bakoitzaren erritmoa errespetatuz, garapen motorrari dagokionez; jabetze motor bakoitza aurretiazko jabetze baten ondoren dator eta beraz, jarduera motor egoki bat ahalbidetzeko, ezinbestekoa da jabetze maila guztiek oinarri egonkor eta orekatu bat izatea. Horregatik inoiz ez zaio haur bati menperatzen ez duen postura batean jarriko.
- Ahozko komunikazioaren bidez, helduak haurraren lorpenak aditzera emango ditu noizean behin, haurrak haren aurrerapenen berri izateko.

Ikusten dugunez, helduaren presentzia eta esku-hartzea beharrezkoa da, beti ere, zeharkako modu batean, ingurua aberastuz, erritmoa errespetatuz, haren interesa adieraziz, betiere distantzia bat mantenduz baina era eraginkor batean.

2.2 Norberaren buruarekiko eta inguruarekiko kontzientzia

Haurrek inguruarekiko kontzientzia garatzeko ezinbestekoa dugu ekintzek, bai espazioan zein denboran, **erregulartasun** eta **egonkortasun** bat izatea. Egunero behin eta berriz errepikatzen den ekintzak eragin zuzena izango du haurraren burmuinean eta pixkanaka jarduera edota egoera horren jabetze bat emango da. Modu honetan, haurrak, denbora aurrera egin ahala, ekintza horiek aurreikusteko gaitasuna izango du eta, ondorioz, horietan parte hartzeko aukera ere. Guzti honek, batez ere, kalitatezko zaintzen momentuan zentzua hartzen joango da.

Zaintzetan helduak haurrak bidalitako seinaleak jaso eta kontuan hartzen baditu, haurrak zaintza horietan **parte hartzeko** aukera zabalduko du. Haur jaioberriak burutzen ari den ekintzan parte hartzeko eta eragina izateko aukera badu, bere burua

ezagutzeko eta bere nahiak adierazteko bidea zabalduko diogu. Aldi berean, nor den, zer gertatzen zaion, zer egiten dioten eta berak zer egiten duen, zein den bere ingurunea, bere egoera eta zer etorriko den barneratzen hasiko da.

Egoera hauetan, **ahozko komunikazioa** oso garrantzitsua den elementua dugu. Helduak haurtxoari zuzenean egiten dion guztiak ahozko itzulpena du. Helduak, ume txikiaren edo helduaren keinuari, hitza gehitzen dio; batera egiten duten prozesuari ahozko narrazioa gehitzen dio helduak, haurra edo haurtxoak burutzen dituen ekintzei, helduak haurrari eskatzen dionari, edota haurraren erantzunari. Hortik aurrera, haurrak komunikazioaren gaineko interesa pizten du eta adierazpenerako alor zabal bat lortzen du, uneoro helduak bera errespetatzen duela eta bere ekintzek zentzuaz jabetzen dela sentituz, eta aldi beran, bere buruarekiko eta ingurunearekiko kontzientzia garatuz.

2.3 Umea eta helduaren arteko lehentasunezko harremana

Haur osasuntsuek inguratzen dituen munduagatik **interesa** agertzen dute eta horren arabera jokutzen dute. Baina, Falk-ek dion bezala,

“Ingurune aldakorretan hazitako haurren bizitzan —hainbat hezitzaileekin eta egoera aldakorretan hazitako haurrengan—, jarraitutasun-falta horrek traba egiten die haien garapen afektibo, kognitibo eta sozialari. Haurra ingurune batetik bestera igarotzen den aldiro, dena aldatzen da haren biran: objektuak, pertsonak, bizimodua, ohiturak...”
(Falk, 2008b, 8 orr.)



Erakundeetan hezitako haurren segurtasun afektiboa bermatzeko Pikler-ek ezinbestekoa ikusten du, lehenengo eta behin, bizitza egonkorreko marko bat eskaintzea, bai fisikoa eta psikikoa, haur eta haurtxo bakoitzarentzat erreferentzia izango den heldu baten presentzia ziurtatuz. Erakundera sartzen direnetik, behin-betiko ateratzen diren arte, helduen talde murrizt batek soilik, lau talde

bat gehienez ere hartuko du haur-taldearen ardura. Modu honetan, haurrek eta helduek ongi ezagutu ahal izango dute elkar eta, modu honetan, haurrak haren nortasuna egoki eraikitze beharrezkoa duen **segurtasun afektiboa** asetuta geldituko da (Falk, 2008b).

Hezitzaileak haur kopuru berbera duenez beti —sei-zortzi haur gehienez ere— haurrek eta hezitzailearen arteko harremana oso estua izango da, ondo ezagutuko dute elkar, eta bata bestea ulertzeko gai izango da modu honetan, hezitzaileak banan-banan erantzun ahal izango die haurrek bidalitako erreakzioei eta seinaleei (Falk, 2008b). Hori lortzeko, hala ere, ezinbestekoa da haurtxoak edota haur-txikiak jasotzen duen arreta eta zaintzak harreman egonkor baten barruan ematea, benetako hartu-emanen oinarrituta, haurrak nor zaintzen duen ohartu dadin, eta, aldi berean, bere nortasunaz eta osotasunaren **kontzientzia** ere hartu dadin.

Haurra eta helduaren arteko harreman hori, batez ere, zaintza zuzenetan: bainua, bazkaria, arropa aldatzea, etab. garatu egingo da. Tarte hauetan, hezitzaileak beharrezko denbora eskaini beharko dio haurrari bere nahiak azalazteko, haren nahiak eta seinaleak ulertzeko, eta berauei erantzun egoki bat eskaintzeko. Zaintza zuzenetan, keinuen eta hitzen elkarrizketa sortuko da, hezitzailearen keinu txeratsuek nagusituko dira eta, arestian azaldu dugunez, edozein ekintzaren berri emango dio haurrari hitz leunen bidez. Zaintza hauetan, hezitzailea haurtxo edo haur txikiarengana arduratsu eta maitasunez hurbiltzen bada, hasieratik haurrak egiten duen guztiari hitza jartzen badio, haurraren keinu eta seinaleak ulertzeko ahaleginak egiten baditu, haurrari, haren adina edozein izanda, ekintzaren parte izatera bideratuko du (Falk, 2008b). Etxeko araua hurrengoa dela dirudi: “ *Instituzio batean daudela kontuan izanda, ezin zaie eman ahal zaiena baino gehiago promestu, baina eskaintzen zaiena iraunkorra eta segurua izan behar da*” (David eta Appell, 2010, 27 orr.).

2.4 Umearen osasun-fisiko egoera ona, aurreko printzipioen ondorio

Haurraren osasuna oso gertutik aztertu egiten da. Haur bakoitzari eguneroko behaketetan oinarritutako banakako erregimen zehatz bat ezartzen zaio, eta ez soilik

janariaren aldetik, baita inguruari eta eguneroko jardueri begira. Erregulartasunez egiten diren medikuntza-azterketen bidez haurren garapen globala ezagutzeko aukera bikaina dute. Proiektuaren ezaugarri nabarmenetarikoa kanpoaldean aurrera eramandako bitzta dugu, haurrak ahalik eta denbora gehien ematen baitute eraikinaren kanpoaldean. Hezitzaileek haur gaixoa taldearen barnean zaindu egiten dute. Gaixotasunaren ondorioz segurtasunik gabeko egoera batean egonda, taldearen zein hezitzailearen presentzia inoiz baino beharrezkoa dela uste dute eta horregatik eguneroko jarduerak eskaini diezaioketen segurtasunetik aldentzea zentzugabea ikusten dute.



3. Osasun egoera ona

Aurreko printzipioekiko errespetuak bi ondorio nagusi dakartza (David eta Apell, 2010): Alde batetik, egoera ezberdinen aurrean sortzen diren jokabide originalak eta horien bidez ezartzen diren hezkuntza printzipioak. Eta bestalde, haurren bitzta baldintzatu dezaketen presaz hartutako erabakiak saihestea. Taldearen eguneroko errutinak pixkanaka moldatu egiten dira taldearen partaideen beharrei erantzuten joateko. Baina edozein aldaketa burutu baino lehen, betiere behaketan oinarritua, pentsatu eta prestatu egiten da. Ez dira inoiz momentuko aldaketarik egiten baldin eta haur eta haurtxoen beharrak asetzeko baldin ez bada.

3. Kalitatezko zaintzak

Haurtxoak eta haur txikiak izaki sozialak diren heinean, garatzeko duten modu bakarra, bai heldu zein beste haur batzuekin duten interakzioaren bitartez ematen da. Bere izaera eta jokatzeko berezko jarrerak helduek haur hori zaintzeko eta laguntzeko duten moduaren arabera eraiki egingo da. Gurasoek edota hezitzaileek eskaintzen dizkieten zaintza zuzenek, hala nola, elikadura, bainua, pixoihal eta arropa aldaketa, loa, eta haurra hartzeko eta uzteko moduek; balore anitz eta ikasketa handiko momentuak badira ere, orokorrean ez zaie behar beste garrantzia ematen. Hala ere, jaiotzen direnetik haurrek helduengandik jasotzen duten guztia ulertzeko gaitasuna dute baldin eta heldua hori guztia modu egokian egiten badio.

Oso presente izan behar dugu, haur bat errespetuz eta begirunez tratatzen baldin badugu, errespetua eta begirunea bizi izango duela eta besteak modu horretan tratatuko dituela. Aldiz, haur bat zakarki tratatzen badugu, etorkizunean modu berean tratatuko ditu besteak. Lóczy Institutuan berau oso presente dute eta haur bakoitzari jarduera librean eta jolasean oinarritutako bizitza ordenatua eskaintzeaz gain, zaintza zuzenetan ematen den helduaren eta hauraren arteko harreman berezian oinarritutako antolaketa paregabeari erreparatu behar diogu ezinbestean. Haurrek helduaren presentziaren berri dute zaintza zuzenetan eskaintzen zaien banakako arretari esker, eta horien bidez **kalitateko harreman txeratsu iraunkorrak eta erregularrak** eskaintzen dizkiete haurrei. Jarduera askea hauraren nahi eta arduren adierazpenerako tarte bada, bere burua eta ingurune aberatsa ezagutzeko eta esperimintatzeko tarte, helduaren presentzia eskatzen den momentuetan, kultur eta esperientzia-afektiboen transmisioa eta adierazpen maitekor eta sotilak hartzen dituen espazio pribilegiatuak izango dira.

Baina, zer nolako eragina izango dute kalitatezko zaintza horiek hauraren izaeraren eraketan?

3.1 Kalitatezko zaintzen garrantzia

Ikerketa psikologiko eta neuropsikologikoei esker, jakin badakigu *“aztarna utzi dezakegula hauraren azalean”*, eta ondorioz, gorputz-zaintzek haurari, elikadura eta higie beharrak asetzeaz gain, aldi berean, ongizatea eta erosotasuna eskaini beharko dietela ere.

Hasierako hilabete eta urteetan haur txikia erabat babesgabea den izakia dugu, bizirik irauteko *“beste”*-ren laguntza behar duena. Wallon-en hitzetan (1942, 56 orr.): *“haurrak hilabeteak eta urteak ematen ditu bere desioak beste pertsona baten bidez asetzen”*. Bai digestio-aparatu, aparatu-iraizle eta arnasa-aparatu jatorria duten **erreakzio interozeptiboak** zein eskeletoaren muskulaturari lotutako **erreakzio propiozeptiboak** asetzeko, heldu baten menpe egongo da tarte garrantzitsu batzuetan, haurra elikatu, garbitu, jantzi-erantzi eta abar. egin behar duelako.

Beraz, alde batetik, haurraren behar organikoak, lehenengo hilabeteetan batez ere digestio-aparatuari lotutako beharrak, azalerazten dituen kitzikapen interozeptiboak ditugu. Bestalde, eskeletoko muskulaturak kitzikapen laberintikoen ondorioz jasaten dituen aldaketa toniko eta posturalak ere kontuan izan behar ditugu. Hauek erreakzio propiozeptiboak dira, eta horien bidez haurrak mugimendu bat edo beste burutzeko kontzientzia garatzen joango da. Kitzikapen primario hauen bidez, oso garrantzitsuak haurraren psikismoaren eraketan, haurrak tonu aldaketa ezberdinak jasan egingo ditu eta ondorioz emozio ezberdinak sentitu ere. Emozioak, Wallon-ek dionez, jarduera posturalaren ondorio baitira eta euren jatorria eskeletoko giharren eta erraien tonuan jatorria baitute. Emozio horien adierazpenean emango da kanpoalderako lehenengo harremana, **humanizazio prozesuari** hasiera emanez, hau da, harreman adierazgarrien sorrerari.

Aldi berean, garapen intelektuala ahalbidetuko duen **kontzientiaren eraketa** emango da ere. Wallon-ek garapen-intelektualak kontzientzian jatorria duela defendatzen zuen, baina prozesu hau ez da jaiotzetik ematen sozialki eraikitzen den eta sinbiosi afektiboan jatorria duen prozesua baita. Wallon-ek gizabanakoaren kontzepzio unitarioa defendatzen du, giza-garapena biologikotik edo naturaletik sozial edo kulturalera ematen den trantsizioan sortzen dela adieraziz. Vygotsky-rekin bat dator haurra jaiotzen denetik izaki soziala dela baieztatuz, eta besteenganako interakzioek berebiziko garrantzia izango dutela bere garapen intelektualaren sorkuntzan, hau da, kontzientzian.

Aipatu dugunez, hasiera batean haurrak bere barneko egoeraz ohartzeko zenbait erreakzio ezberdin jasaten baditu ere, kanpoaldeko existentziaz ohartzeko beste tresna oso baliogarria du, azala. Haurrak kanpoaldearekin duen lehenengotariko kontaktua azalaren kanpoaldean kokatu egiten da. Azala komunikatzeko tresna baliogarrienetariko den heinean, babes-funtzioa ere badu. Gorputzaren muskulatura babesten duen zorroa da, propiozeptibitate eta exterozeptibitatearen mugarria izanik. Gorputzaren mugak ezartzeaz gain izaeraren garapenean berebiziko eragina izango du, "ni"-a eta "bestea" bereizteko prozesuan hain zuzen ere. Hasiera batean, norberaren gorputza eta kanpoaldea bereiztea ez da gauza erraza, eta azalak bereizketa hori egiteko bidea eskaini egiten digu. Ukimenak haurrarengan estimulu anitz sortzen ditu

eta emozioak elikatu egiten ditu aldi berean. Azala haur jaioberriaren organorik garrantzitsuenetarikoa dugu: haur bat oso ondo elikatuta eta garbituta baldin badago baina ukitua eta laztandua ez bada, aukera asko izango ditu atzerapen emozional zein fisikoak pairatzeko. Hainbat ikerketek aditzera eman duten bezala, azalak haurrari kanpoaldeko informazioa jasotzeko aukera ematen dioten heinean, neuronen arteko harreman anitz ezartzeko aukera eskaini egiten du ere. Azalak, haurren oreka emozionala indartzeaz gain, besteenganako harreman txeratsiak ezartzeko aukera eskaintzen digu ere. Azala, gutxi gora behera, haurdunaldiko bigarren hilabete amaiera sortu ohi da, haurrak ukimen zentzua jaio baino aurretik garatzen du beraz. Ukipen egoki bat jasaten duen umeak ume alaia eta gizartekoia izango da, autoestima handiagokoa eta kanpoko estimuluen aurrean seguruagoa. Aldiz, ukipen desegoki bat jasan izan duten umeek objektu zein pertsonetikiko dependentzia handiko izaera garatuko dute eta haur zalantzatiak izateko arriskuan egongo dira. Wallon-en ustez, gizakien arteko harreman txeratsuek euren sentikortasun organikoaren zirkulutik ateratzeko aukera eskaintzen dizkiote haurrei eta modu honetan **jarduera intelektual**a garatzen hasten da, kalitatezko harreman hauek kontzientziaren eraketa ahalbidetzen dutelako.

Kalitatezko zaintza zuzenek, haurrari bere gorputza ezagutu eta bere funtzionamenduan plazerra aurkitu eta hortik ikasketa anitz burutzeko aukera eskainiko diote, eta aldi berean, azala bera eta beste munduaren arteko muga dela ere. Haurra, jaiotzen denetik bere gorputza ezagutzeko bi bide izango ditu (Falk, 2013):

1. Haurrak bere gorputzarekin egiten duen guztiarekin, hau da, bere berezko jarduerarekin.
2. Besteek haren gorputzarekin egiten dutenaren bidez, ukitu, hartu, elikatu, zaindu, etab.

Besteen gorputza ikusi eta eurekin bizi izandako esperientziek norberaren gorputza eta baita norbere burua ere ezagutzeko aukera paregabea eskainiko dio. Bi aspektu hauek elkarri oso lotuta daude eta ezin dira bata bestetik aldendu. Lóczy Institutuan kalitatezko zaintzei esleitutako momentuak heldua eta haurraren arteko harreman zuzeneko tarterik inportanteenak dira. Haurrak zaintza horietan segurtasun afektiboa

bizi izaten duenez bertan eta ondoren autonomoki jokatzeko aukera dauka eta **munduarekiko interesa** eta **plazerra** erakutsiko du, zeren merezitutako jarrerak direla biziko du. Haurrak, batez ere, kalitatezko zaintzen bidez, bere behar fisikoak asetzen, ezagutzen hasten da bere burua eta heldua bera. Hasiera batean, behar fisiko horiek tentsio ezatseginak izango dira. Ez daki gose dela, hotz edo bero dela, edo mina duela. Helduak sentsazio ezatsegin hauek baretzen lagunduko dio haurrari eta berau egiteko modu errazena, haurraren keinuak ulertzen izango da. Haurrak, behar hauek sentitzean eta berauei helduak ematen dien erantzuneni esker, behar hauek ulertzen eta kontzientzia eratzen hasiko da. Gainera, heldua tentsio horiek baretzen duena bada ere, berak asetze hori lortzeko seinale aproposak sor ditzakeela ere konturatu egingo da eta apurka-apurka bere ongizatearen protagonista eta arduraduna dela jabetzen joango da. Modu honetan, lehen hilabeteetako zaintza zuzenen kalitateek haurraren tonua, izaera, eta munduarenganako konfiantza definituko dute hein handi baten.

Beharrizanen adierazpena eta jasotako erantzunetatik abiatuz, jaioberriak haren beharrak hautematen hasiko da. Eta aldi berean, heldua bada ere horiekin amaitzen duena, berak keinu egoki bat helaraziz, ekintza horretan parte har dezakeela ikasten hasiko da. Zaintzetan helduak haurrak bidalitako seinaleak jaso eta kontuan hartzen baditu, haurrak zaintza horietan parte hartzeko aukera zabalduko du. Haur jaioberriak burutzen ari den ekintzan parte hartzeko eta eragina izateko aukera badu, haren **eraginkortasun sentimendua** indartuko du, bere integrazio sozial txeratsua oinarria izango dena (Falk, 1990).Gauzak horrela eta kalitatezko zaintzen garrantzia aztertuta, berauek nola burutu behar diren aztertzeari ekingo diogu.

3.2 Kalitatezko zaintzak burutzen

Emmi Pikler doktoreak, Lóczy institutuan bizi izandako esperientzietan oinarritutako haurren kalitatezko zaintzak burutzeko *"koreografia"* antzeko bat sortu egin zuen. *"Koreografia"* honen bidez, haurrari zuzentzeko era egituratu nahi zuen Pikler-ek, hezitzaile bakoitzak bere erara egin ez zezan eta eragin ezkorrek saiheste aldera.

Bertan, haurra eta helduaren arteko harremana eta komunikazioa zehazten zuten hainbat aspektu azaldu zituen, hurrengo lerroetan aztertuko ditugunez.

Lóczy Institutuan burututako bainuek, bazkariak eta janzteak eta eransteak, hau da, zaintza zuzenek, haurraren adina edozein dela eta, ezaugarri berezi batzuk agerian uzten dituzte hurrengo arrazoiengatik (David eta Apell, 2010):

- Haurra ez da inoiz objektu gisa tratatzen, sentitzen, behatzen, oroitzen eta ulertzen edota, aukera ematen bazaio, berehala ulertzera helduko den gizakitzat baizik.
- Zaintza zuzenen sekuentzia guztiek, beti, ordena berdina jarraitzen dute eta modu berean burutzen dira. Hezitzaileek ikasi eta errespetatu egiten dituzte sekuentziario horiek haurrek berauek aurreikustera heldu arte.
- Ez dago presa ezta zakarkeriarik. Hezitzailea etengabeko jardueran badago ere, ez du presa duen irudirik eskaintzen eta haurrari behar duen denbora guztia eskaintzen dio.
- Zaintza zuzenak inoiz ez dira eten egiten. Salbuespeneko kasu batzuetan izan ezik, hezitzaileak hasi duena amaitu egiten du beti haurraren erritmoa errespetatuz.

Ezaugarri hauek izango dira Lóczy Institutuko zaintza zuzenei egitura eta zentzua ematen dietenak eta ondorioz, inportantea da ezaugarri bakoitzari tarte txiki bat eskaintzea.

Haurra objektu gisa tratatu beharrean sentitzen, pentsatzen, adierazten duen gizakitzat hartzen dutela adieraztean, *zer esan nahi dugu?* Lehenengo eta behin, hezitzaileak burututako **keinuen leuntasuna** aipatu beharra dago. Hezitzaileak presente du denbora oro haurrari egiten dion guztiak ondorio bat dakarrela eta ezinezkoa dela bere erosotasunak zaintza zuzenen norabidea gidatzea. Den-dena modu fin eta leun batean burutzen da, umearen kokapena mantentzen da, bakar bakarrik jarduera betetzeko ezinbesteko mugimenduak eginarazten zaizkio eta bai burua zein gorputzeko beste atalak ere leuntasun handiz igurtzen dira.

Baina, *nola burutu daiteke esandakoa errealitatean? Zer dago profesionalaren esku kalitatezko zaintzak eta harreman sakona, orekatua eta berdintsua bere kargu dagoen ume bakoitza eta guztiekin aldi berean gauzatzen joan ahal izateko?* Hona hemen jarrera batzuk:

Hezitzaileak **haurra eusteko eta uzteko moduak** aurrekoa modu argi batean erakusten du: lehendabizi, haurra bere izenarekin deitzen zaio, beharrezkoa bada buruz-gora jartzen zaio hezitzaileari begira, zeina haren begirada bilatzen du; ondoren, besoa altxatu egiten zaio pixka bat, hezitzaileak haren buruaren azpitik bere eskua sartu ahal izateko eta berau modu egoki batean eusteko; soilik momentu horretan altxatu egiten da haurra.



4. Haurra eusteko modu egokia

Berriz ere seaskan edo aldalekuan uzteko, leuntasun berarekin burutu egiten da prozesua, utzi baino lehen, hezitzaileak haurra begira egiten du, umeari momentuan gertatzen ari zaionen inguruko hitz batzuk eskaintzen dizkio eta agurtu egiten da.

Leuntasunari, haurrak jarduera guztian zehar parte hartzeko nahia gehitzen zaio. Baina, *posible da haur jaio-berri baten parte hartzea lortzea?* Emmi Pikler-ek oso argi zuen baietz eta Lóczy Institutuan izandako esperientzia eta froga ugariaren ondorioz haurren partaidetza lortzeko hezitzaileak bete beharreko baldintza batzuk argitzea ezinbestekoa da.

Hezitzailearen **hitz egiteko moduari** erreparatuz, ezaugarri komun batzuk agertzen dira Lóczy-n: tonu uniforme, ez oso gogorra eta erritmo konstantea. Instituzioko presio akustikoaren maila baxua da orokorrean beste instituzio batzuekin konparatuz (David eta Apell, 2010). Horretaz gain, hitzari beti erabiliko den objektuaren azalpena dator: edalontzia, koilara, arropa ... hezitzaileak objektua erakusten dio eta haurrak objektu

horiek ukitzeko egiten dituen saiakerei erantzuten dio. Manipulatzeraz bultzatzen du eta, aurrerago, bera bakarrik erabiltzeraz animatu ere.

Zaintza zuzenetan hezitzaileak haurrari begira hitz egiten dio. **Egiten ari dena azaltzen** dio, adibidez, *“eskua hartuko dizut jertsea jartzeko”* edota *“orain zure hankak garbituko ditut”* edota *“polita egoteko ilea orraztu egingo dizut”*; aldi berean haren erreakzioak aditzera ematen dizkio, *“A! Keinuak egiten dituzu hau gustatzen ez zaizulako! Lasai, laster amaituko dugu eta”*; edota zer nahiago duen galdetzen dio, parkera joan ala ohera, eta gauza biak erakutsiz, non egongo den hobeto eta zergatik azaldu egiten dio, etab. (David eta Apell, 2010). Haurra handitzen doan bitartean, hezitzaileak egiten duena komentatzen jarraitzen dio haurrari, eta haren interesei etengabe erantzuten jarraitzen du.

Haur txikiari edo haurtxoari etorriko dena aurreratzeak, bere buruan ekintza ezberdinen sekuentzia sortzea ahalbidetuko du eta honek, etorriko diren egoeren aurrean jarrera bat hartzen eta laguntzen lagunduko dute, pentsamenduaren zenbait atal lantzeaz gain alde emozionala ere landuz. Zaintzetan parte hartzeko aukera eskaintzen zaion umeak, helduaren laguntza txikiagoa behar izango du eta modu honetan, bizitza osoan izango duen bere buruarekiko segurtasuna eta autonomia garatzen joango da, oreka emozionala eta afektiboa eskuratuko du eta bestelako egoera batzuetan inizatiba hartzeraz bultzatuko du. Gai egin da eta.

Haurraren kooperazio aktibo bat bilatzen da. Horretarako, hasiera batean haur jaioberriaren berezko mugimenduz baliatzen da, adibidez, eskua altxatzen duen momentua aprobetxatu egiten du mauka sartzeko eta ondoren egindako azaltzen dio. 2-3 hilabeterekin eskua altxatzea eskatzen dio eta momentu egokia eta haurraren berezko mugimendua itxaroten du ekintza burutzeko. Haurra, hazi egiten den heinean, kooperazio honen kontzientzia hartzen doa berezko jardueraz naturala bihurtu arte.

Posizio-aldaketei dagokienez, gauza bera gertatzen da. Haurrari askatasun guztia uzten zaio berak nahiago duen posizioan jartzeko eta hezitzaileek badakite hauren mugimendu hauek jarraitzen. Hala ere, haurraren posizio-aldaketa beharrezkoa bada, eskatu egiten zaio, hezitzaileak itxaron egiten du eta haurraren berezko mugimendu bat erabiltzen du aldaketa burutzeko. Haur bat derrigorrez posizio jakin batean jartzea

akats bat bezala ikusten da Lóczy-n. Jarduteko modu honek armonia sortzen du hezitzaile eta umearen arteko mugimenduetan eta, aipatu beharra dago, ez duela ekintza beraren iraupena luzatzen, ez baitira ematen haurrak hezitzailearen mugimenduen aurkako jarrerarik ematen.

Azkenik, haurra espazioan kokatzeko eta etorriko denaren berri izateko ardura presente izanik, ingurua umearen beharrizanen arabera antolatua eta ordenatua dagoelarik zaintza zuzenak **ordena zehatz batean** eramaten dira aurrera eta haurrek ordena hori ahalik eta lasterren barneratzea bilatzen da. Horretarako, haurren adina edozein izanda, hezitzailea haur batekin dagoen bitartean hurrengoari ondoren beraren txanda izango dela auresaten dio. Modu berean, hurrengo umearekin hasten denean, ondoren etorriko denarekin gauza bera egiten du. Txandak zorroztasunez errespetatzen dira eta haur bat negarrez hasten bada, bere txanda itxaron beharko du. Hala ere ez zaio negarrean uzten. Hezitzaileak haurraren ongizatea berreskuratzeko zer edo zer egingo du: parkean duen kokapena aldatu, jostailu berri bat eman, etab. Baina inoiz ez da haur bat bere txanda baino lehen edo ondoren zainduko, txanda errespetatu egingo da gehienetan. Aldiz, bere txanda heltzen denean, lo dagoen umea esnatu egingo dute, leuntasunez, eguneroko jardueraren onuraz jabetu dadin.

Prozedura hau oso zorrotza badirudi ere, txanden ordena ez da arbitrariotasunez ezartzen, haurren erritmoen arabera baizik. Gainera, 6 eta 10 hilabete bitartean, haurtxoak taldean duen lekuaren kontzientzia eraikitzen hasten da, eta orokorrean, ez du bere txanda heldu arte helduen atentziorik eskatzen. Momentu zehatz batean haurra deseroso sentitzen bada, badaki zer gertatuko den, egunero ekintza guztiek ordena bera jarraitu baitute eta haurrak etengabe ekintza horiek kokatzeko gai izango da (David eta Apell, 2010). Bere nahastea, modu honetan, mugatuta geldituko da.

Hala ere, hezitzaileak haur bakoitzari beharrezko denbora eskaini ahal izateko, presa barik jardun ahal izateko eta atentzio guztia zaintzen ari den umeari eskaini ahal izateko, **segurtasuna** izan behar du. Momentu horretan bere atentzioa ez duen haur-taldeak autonomia osoz jolastu eta abandonu eta frustrazio sentimendurik garatuko ez duenaren konfiantza izan beharko du hezitzaileak (Falk, 2003). Hezitzaileak hau ulertuko ez balu, jolas autonomoaren garrantzia bigarren maila batean jarriko zuen eta

haurrari, nahi gabe, bere erruduntasun-sentimendua helaraziko litzaioke, euren artean harreman anbiguo bat sortuz; hezitzaileak errudun sentimendua helaraziko zion haurrari eta haurrak frustrazioa eta abandonu sentimendua garatuko zuen.

Zaintza zuzenetan izan ezik, haurrak bere lo eta deskantsu erritmoak jarraitzen ditu. Ez dago haur guztiak esnatzeko ordu bat, ez goizean, ezta arratsaldean ere ez. Praktikan, haurrek ondo ezagutu eta zorrotzasunez erabilitako txandek, haur taldeek askotan sufritzen duten itxaronaldi-garaiak saihestu egiten dira. Beraz, txanden sistema tresna oso baliogarria dirudi haurren frustrazioak gutxitzeko eta euren ongizatea eta segurtasuna bermatzeko (David eta Apell, 2010). Epe ertain batean, bere erritmoa apurka-apurka besteenarekin partekatuz erritmo komuna eratzen da. Laburbilduz, haurrak haren gorputza eta ingurunearen gaineko lehenengo hilabeteetan sortzen duen irudia, bere etorkizunean izugarrizko eragina izango du. Bizitzako lehenengo urteetan jasotzen dituen zaintzek bere bizitzak eragin handia izango dute, bere izaeran, bere buruan irudian, bere kontzientziaren garapenean, bere jarrera afektibo-sexualean, eta, etorkizun batean, guraso gisa izango duen jarreran ere. Bere gorputzarekiko eta haren funtzionamenduarekiko harremana zaintzak burutzeko moduaren arabera erabakiko da.

4. Azken ondorioak

4.1 Egungo egoera

Ikusi dugunez, haurrak tratatzeko moduari erreparatuz, Lóczy eta bestelako ospitale edo eskolen arteko ezberdintasuna handia dago. Zentro gehienetan, profesionalak, bere jarduteko berezko moduari eta intuizioari jarraitzen dio normalean. Unitate didaktikoak garatzeko eskuliburuak ez bezala, pixoihal aldaketa edota elikatzeko moduaren gaineko eskuliburu teknikoak eskasak dira. Orokorrean, haurtxoa edo haur txikia, helduaren eskuetara ohitu egiten da, eta esku horiek izaten dira normalean bera eta haurraren arteko harremana ezarri egingo dutenak.

Helduak 3, 6, 9 hilabeteko haurrari pasibotasuna eskatzen dio. Haurrak, modu honetan pasiboki itxaroten ditu helduaren keinuak. Jarrera hau onartzen ez badu, helduak


haurraren atentzio desbideratzeko teknika ezberdinak jarriko ditu martxan, gehienetan objektu batez baliatuz, eta haren gorputzeko atal guztietara zuzenduko da haurrari baimena eskatu gabe. Zaintza zuzeneko tarteetan haurrek duten jarrera pasibo hau haur eskola gehienetan zabaldua dagoen praktika dugu, eta belaunaldiz belaunaldi transmititu egin da, beti ere egoera atontzen duen *sasi-humanizazio* jarrera batekin. Orokorrean, haur jaioberriak tratatzeko modu profesionalak eredu tradizional eta intuitibo bat jarraitzen du, egungo psikologia eta neurozientzietako ikerketek haur jaioberriaren aparteko gaitasuna demostratu duenean eta ondorioz eredu askoz ere aktiboagoa, umearen aldetik, noski, aholkatzen duenean. Profesionalek oinarrizko formazioan benetako haurra ezagutu eta era egokienean garatu dadin hezkuntza ereduaren ezaugarriak menderatu behar dute praktikaren bitartez, haurra beti subjektu gisa tratatzeko eta patroi eraginkor egoki batzuk eskuratzen joateko. Modu honetan, haurrak ez du bera eta helduaren arteko harremanean bere barneko sentrazioak asetzeko inolako desoreka edota hutsunerik aurkituko.

4.2 Gure jardunbidea birplanteatzen

Egoera honi erreparatuz, hezkuntzaren profesionalak garen heinean gure jardunbide profesionala birplanteatu behar dugula argi dago. Ez gaude haurraren beharrei modu egoki batean erantzuten. Egun bai gaztaroan zein zahartzaroan ematen diren zenbait arazoek (gizarteratzeko arazoak, autoestimua arazoak, oreka arazoak, etab.) argi uzten dute biziaren hasieran, lehen haurtzaroan egindako lana ez dela egokia izan eta ondorioz, subjektu horiek bizitza osoan gabetasun horiekin bizitzera kondenatuta egongo direla.

Zer egin dezakegu, Haur Hezkuntzako hezitzaileak garen heinean, haurren beharrei modu egoki batean erantzuteko, beraz?

Alde batetik, haur kapazak, osotasun batean garatzen direnak eta euren gorputzaren eta buruaz kontziente diren haurrak hezteko, gure jardunbidean ezinbestekoak izango diren zenbait printzipio aipatu behar ditugu:



Printzipio hauek apurtezinak izan beharko liriateke hezitzaile baten lanean. Baina, zer gertatzen da 8 haurtxo edo 12 haur txiki dauden ikasgela desegoki batean? Posible da printzipio hauetako bakoitza haur guztiekin errespetatzea? Posible da haur guztiei beharrezkoa duten segurtasun afektiboa eskaintzea, mugimendu askea ahalbidetzea?

4.3 Pikler-Lóczy metodologia eredu

Ikusi dugunez, Lóczy Institututik printzipio hauek errespetatzeko eta gure jardunbidean barneratzeko pautak ezberdinak helarazten dizkigute. Modu honetan, aurreko printzipioak aurrera eraman ahal izateko, hezitzailearen jarreraren oinarri sendo batzuk eraikitzea ezinbestekoa izango da.

Eredu honi jarraitu nahi dion profesionalak argi izan behar du, bere gorputzaren bidez hezkuntza proiektu hau transmititu ahal izateko, diziplina handiko ikasketa eta entrenamendu bat jaso beharko duela. Bere ekintzak haurraren menpe egongo dira uneoro, haren nahi eta beharretara egokituz. Harengan konfiantza izan beharko du, garapen maila ezberdinetara heltzeko bide horien erritmo ezberdinak errespetatuz. Helduak haurra erabakiak hartzen dituen subjektu gisa ikustera heldu behar da. Jaioberriaren oreka eta hauskortasuna kontuan izan beharko du ere, eta haurrak bere burua orekatzeko espazio eraginkorrak sortu. Mugimendu askatasunak ez dakar beraz, helduak haurraren mugimendua haren beharretara baldintzatzea. Heldua, instituzionalki ezarritako denborak eta haurraren eta helduaren interes eta desioen arteko oreka dinamiko eta harmonikoa lortzeko ahaleginak egin beharko ditu.

Beraz, eta amaitzeko, haurtzaroko lehenengo urteetan lan egingo duten profesionalen ezinbesteko hiru baldintza aipatzea gustatuko litzaidake: **sentikortasuna** (hezkuntza egoeran haurren xehetasun txiki zein handiaz jabetzeko), haurrari denbora emateko helduaren **euste-ahalmena**, eta, azkenik, jarduten dagoen bitartean **behaketak egiteko gaitasuna**, haurren behar zorrotzei ere momentuan erantzuna eman ahal izateko.

Etorkizunari begira, egungo eskoletako egoera goitik behera aldatu behar dela argi dago. Eta beraz, etorkizuneko hezitzaileon erronka argia da. Ezinbestean **haurraren ezagutza sakona** eskuratu behar dugu gure jardunbidea ahalik eta egokien burutzeko.

Lan honen bidez haurra ikusteko begirada erabat aldatu dut. Bai formakuntza pertsonalean zein profesionalean eragin zuzena izango duen lana izan da Gradu Amaierako Lan hau. Nire jardunbide profesionala zuzenduko duten oinarrizko printzipioak ezagutu eta berauen inguruan hausnarketa sakon bat egiteko aukera izan dut. Eta honekin batera, nire burua hobeto ezagutzeaz gain, gure lana burutzeko ezinbestekoa dugun lehen haurtzaroaren inguruko ezagutza handitu dut.

5. Erreferentzia bibliografikoak

David, M. y Appel, G. (1986). *La educación del niño de 0 a 3 años: experiencia del Instituto Lóczy*. Madrid: Narcea.

David, M. y Appell, G. (2010). *Lóczy. Una insólita atención personal*. Barcelona: Octaedro.

Falk, J., (1990) Cuidado personal y prevención. *Infancia*, 4, 34-42.

Falk, J. (1997). *Mirar al niño. La escala de desarrollo del Instituto Pikler (Lóczy)*. Buenos Aires:Ediciones ARIANA.

Falk, J. (2009). Los fundamentos de la verdadera autonomía. *Infancia*, 116, 22-31.

Falk, J., (2008a) Cuidado personal y prevención. En Falk (ed.), *Lóczy, educación infantil* (pp. 11-20). Barcelona: Octaedro.

Falk, J. (2008b). La estabilidad para la continuidad y calidad de las atenciones y las relaciones. En Falk (ed.), *Lóczy, educación infantil* (pp. 21-34). Barcelona: Octaedro.

Falk, J. (2013). Si tocamos el cuerpo del bebé... En J. Falk (Ed.) *Bañando al bebé. El arte del cuidado* (pp. 7-16). Budapest: Asociación Pikler-Lóczy de Hungría.

Falk, J. y Tardos, A. (2002). *Movimientos libres. Actividades autónomas*. Barcelona: Octaedro.

Falk, J. y Vincze, M. (1996). Sobre el control de esfínteres. *La Hamaca*, 8, 36-48.

Herrán, E. (2013). La Educación Pikler-Lóczy: cuando educar empieza por cuidar *RELAdEi. Revista Latinoamericana de Educación Infantil* 2 (3): 37-56.

Hevesi, K. (1993). La participación del pequeño en la atención personal. *Infancia*, 20, 14-18.

Kálló, E. (1991). Raconter aux enfants les évènements de leur histoire. N° 71. Paris: Association Pikler-Lóczy-France.

Majoros, M., Tardos, A. y Falk, J. (2002). *Comer y dormir*. Barcelona: Octaedro.

Pikler, E. (1998). Importancia del movimiento en el desarrollo de la personalidad. Iniciativa-competencia. *La Hamaca*, 9, 31-42.

Pikler, E. (1985). *Moverse en libertad*. Madrid: Narcea.

Pikler, E. (2013). El baño del niño. Guía práctica. En J. Falk (Ed), *Bañando al bebé. El arte del cuidado* (pp. 37-84). Asociación Pikler-Lóczy de Hungría: Budapest.

Tardos, A. (1992). Autonomía y/o dependencia. *Infancia*, 1, 4-9.

Tardos, A. (1998). El rol de la observación en el trabajo educativo. *La Hamaca*, 9, 73-80.

Tardos, A. (2008a). Autonomía y/o dependencia. En J. Falk (Ed), *Lóczy, educación infantil* (pp. 47-58). Barcelona: Octaedro.

Tardos A., Dehelan E. y Szeredi L.,(2010). La formación de los hábitos de los pequeños mediante las actitudes de los educadores. *Infancia*, 123, 19-23.

Vincze, M. (2002). La comida del bebé. Del biberón a la autonomía. *La Hamaca*, 12, 67-82.

Vincze, M. (2013). Sobre la cooperación. Vestir sobre el cambiador, vestidor, cojín. En J. Falk (Ed), *Bañando al bebé. El arte del cuidado* (pp. 17-35). Budapest: Asociación Pikler-Lóczy de Hungría.

Vygotsky, L. S. (1978). *Pensamiento y lenguaje*. Madrid: Paidós

Wallon, H. (1974). *Del acto al pensamiento*. Buenos Aires: Psique, (Orig. 1942).

Gaztelaniazko argitalpenaren zain:

Falk, J. (in press). El hecho consciente en lugar de la instintividad: sustitución eficaz de la relaciónmadre-niño en la casa cuna.

Kálló, E. (in press). Contar a los niños acontecimientos de su historia.